

## Barkamena existituko balitz bezala



### Mariana Travacio

Itzultzailea: Rey Escalera, Fernando

Bilduma: Narratiba, 150

Formatua: 150 x 220 mm

Orrialdeak: 144

Koadernaketa: Paper-azala

Paperezko edizioaren argitalpen data: 2024-02-26

ISBN paperezko edizioa: 978-84-9109-883-6

Materia: Helduentzako literatura

### Salmenta prezioa

**19,00 €**



Barkamena existituko balitz bezala eleberririk giza izaera, indarkeria eta justizia ditu muin. Gorroto trinkotuei eta haiekin loturiko mendekuei buruzko istorio bat da, western paisaien unibertso batean gertatzen dena, lur mortuetan aditzen diren pauso-hotsak inguruan. Kontakizunaren tramak mantso egiten du aurrera eta gauza askotarako denbora uzten du: lurrak gozatzeko, eguzki kiskalgarriaren pean ipar-haizearen bultzada eta izerdi-tanten jarioa sentitzeko. Kontakizunaren hasieratik susmatzen dugu tragedia hurbil dela, nahiz eta ezin dugun jakin nolakoa, zenbaterainokoa. Eta aurrera goaz, dena lehertzen den arte.

Istoria klasikoa da beharbada, baina Mariana Travaciok sentsazio sare indartsua ehundu du unibertso oso bat eraikitzeko: sakon-sakona, soila irudituagatik, eta harrigarri eta lazarria, Comala oroitarazten diguna, baita Juan Rulforen sinbolismoa ere.

«Gau hartan erruarekin jan genuen. Lehenbiziko aldia nuen. Erruarekin jatea goserik gabe jatea da, jate aldera jatea, jan behar delako, eta poliiki murtxikatzea, amorruez, eta irensten ari zarenean pentsatzea badirela beste batzuk jada irentsi ezin dutenak, goserik ere sentitzen ez dutenak, nahiz eta han egon, erreka ondoan.

Horrela jan genuen gau hartan».

## Mariana Travacio



**Mariana Travacio** (Argentina, 1967). Rosarion sortu, haurtzaroa Brasilen eman, eta gaur egun Buenos Airesen bizi da. Psikologia ikasi zuen Buenos Airesko Unibertsitatean, eta gero bertan aritu zen irakasle, Psikologia Forentseko Katedran. Magister da Sormen Idazketan «Tres de Febrero» Unibertsitate Nazionalean, eta frantseseko eta portugeseko itzultzailea da.

Haren ipuinek sari ugari jaso dituzte, nazionalak zein internazionalak, eta herrialde askotako aldizkari eta antologietan eman dira argitara: Argentinan, Uruguain, Brasilen, Kuban, Espainian eta Ameriketako Estatu Batuetan. Hainbat liburu ditu argitaratuak eta hizkuntza askotara itzuliak. Kontakizun liburuak: *Cotidiano* (2015), *Cenizas de Carnaval* (2018) eta *Me verás caer* (2023). Eleberririk: *Barkamena existituko balitz bezala* (2020) eta *Quebrada* (2022).